

BIZKAITARRAI- BIZKAIERAZ*

www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org

332n. zenbakia

2007 azaroa

2007



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

GEIGARRIA: FILOSOFO EUSKALDUNAK

Ez da erreza izaten sarritan nor dan filosofo jakitea, batez be filosofia ta teologia batera joiazan aldian, baiña filosofia' ren edestia ikusi ondoren, ezin dot itzi agertu barik gure filosofoak zeintzuk izan diran.

Erromatarren aldian jakitun aundi bi izan genduzan Euskalerrria'n, lenengo gizaldian Kintiliano eta laugarrenean Prudentzio. Zalantza barik ba-euken euren filosofia eta euskaldunak be ba-ziran, erromatar jantzita egon arren.

Bisigoten aldian ez daukagu barri aundirik, baiña bai Kordoba'ko Eulojio'k gure lekaide-etxeetara egin eban ikustaldia eta emen jakitun asko aurkitu ebala diñon eskutitza. Liburutegi onak aurkitu ebazan, batez be Leire'n, eta liburuen artean filosofikoak be bai.

Arabiarren aldian Muskaria'n aurkitzen doguz Banu Kasi' tarrak euskaldunakaz artu-emonetan eta emendik zabaldu zan filosofia, legetza, elertia ta medikuntza, dana nastean.

Ikastetxe nagusietan be agertzen dira euskaldunak filosofia ikasten, esaterako Lerida'n, Jone Albrit lagun ebela eta ikasle naparrak aurkitzen doguz Alemania'n, Paris'en, Tolosa'n Montpellier'en, Erroma'n, Bolonia'n, Oxford'en eta Kanbridge'n.

XV gizaldian Getaria'ko Martin Kontantza'ko Batzar Nagusian agertzen da, Biana'ko Martin IV Alejandro aita Santuaren teologo zan, Arrasate'ko Meltxor Alkala'ko erretore.

XVI gizaldia urrezko gizaldia da euskal filosofo ta teologoentzat. Iratxe ta Oñate'ko ikastetxe nagusietan ugari daukaguz olako jakitunak.

Ez dogu aitzu bear Bitoria'ko Frantzisko, Salamanka'ko irakaslea. Onen filosofia geien agertu da eskubide-arloan eta ospetsuak dira bere "Relecciones de Indis", laterri-arteko eskubide-arloaren sortzaille diranak. Onen denporakoa da Arrasate'tik urtena da Domingo Bañez

Doctor Nabarrus esaten jakon Azpilikueta'ko Martin Filosofoari. Baztan'en jaioa eta Xabier'en osabea zan. Eta berak esana da: "Pozik nago naparra ta euskalduna nazelako". Eta euskerea asko goratzen eban.

Bartolome Karrantza teologo ta filosofo ospetsua Miranda de Arga'koa zan.

Aldi orretakoak dira josulagunen arteko filosofoak, esaterako Martin Olabe gasteiztarra eta Trento'ko izlaria.

Descartes'en inguruan agertzen jaku Donibane Garazi'ko Juan de Huarte. Onak argitu eban Monteskieu eta enpirismoari bideak zabaldu eutsozan.

Nominalismoaren sortzaillearen artean daukagu Paris'ko Ikastetxe Nagusian Zelaia'tar Juan.

Eskoto'ren jarraitzailleak ziran Berantebilla'tar Pedro, Tolosa'tar Frantzisko, Iribarne'tar Juan, Luis Pueyo eta beste lagun batzuk.

Akino'ko Tomas deunaren jarraitzailleak asko eta asko izan ziran euskaldunak

Filosofo ospetsua dogu Urraburu'tar Juan Jose Zeanuritarra, Gregoriana'n filosofi-irakasle izan zana eta liburu lodiak ta irakurgarriak idatzi ebazana

Unamuno bera, iñoz euskerea gorotatzen agertzen dana, euskalduna eta filosofo ona da. Irakurri Salbatore Mitxelenaren Unamuno ta Abendatz liburua. Unamuno'k Alemania'ko filosoforik ospetsuenakana urreratzen gaitu euskaldunak. Kierkegaard irakurteko ta ulertzeko, onen izkuntza ikasi eban. Beragaz batera daukagu Garagorri Paulino bere agertzaillea..

Juan Zaragueta izan gendun beste filosofo ospetsu bat, irakasten eta liburuak idazten ona eta onen inguruan Xabier Zubiri.

Europa'ko alde guztietan eta aldi guztietan antxe egon gara euskaldunok filosofia ikasten eta irakasten eta batzutan, Frantzisko de Bitoria'ren antzera, zarata aundia atera dogu munduan.

Amaitzeko irakasle izan dodazan filosofo on bi aitatu bear dodaz, esker onez: Oraindiño bizi da Urbako Gil irakasle sakona eta Rordiguez de Yurre Gregorio, etika eta gizarte arloetan irakasle guztiz ona.

OLAZAR'tar Martin'ek



Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

IPUIN SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKARAZALEAK ALKARTEA'K, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuinak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2ª eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer'en agertuko da, Urterillan.
- Sariak bost izango dira:

1.ª 300,50 euro	4.ª 120,20 euro
2.ª 240,40 euro	5.ª 60,10 euro
3.ª 180,30 euro	
- Ipuinak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.
- Epea zemendiaren 30'e an amaituko da, eta aurten ez da luzatuko.

TIBET´EKO LEKAIDEAK (MONJEAK)

SINISTEDUNAK

Munduan geienak gara (% 85 baiño geiago) jainkoaren sinistea daukagunak, era batera edo bestera, eta erlejiño guztiak ez dira besterik illunpean dabillen munduak Jainkoaganantza emoten dauzan urratsak baiño.

Baiña sinistedunen artean lenenengo lekuan monjeak edo lekaideak ikusi bear doguz, eurak diralako Jainkoa geien billatzen dabenak.

Zelako jainkoa?

Baiña sinistedunen artean askotarikoak dagoz: Jainko-irudiak gurtzen dabezenak, izadiko landara, ibai izar eta olakoak jainkotzak daukezenak, dana dala jainkoa uste dabenak...

Gu Jainko bakarra sinisten dogunen artean gagoz, bakarra ta gogo edo espiritu utsa dana gaiñera.

Gu liburudun erlejiñodunak gara, islandarrakaz eta israeldarrakaz batera. Beste batzuk be ba-daukez erlijiño-liburuak, esterako “vedak” deritxenak: Ramayana ta Mahabarata.

OTOITZA

Erlejiñoak berez daroa otoitz egitera eta monjeak onetan eredu doguz, kristiñauak izan naiz budatarrak izan: Otoiotz asko egiten dabe, batzutan bakarka eta beste batzutan alkartuta.

Tibet´eko lekaide edo monjeak, gaiñera, otoitz mekanikoa dauke: Otoitzak idatzi eta eskuetan biraka erabili ezker benetako otoitza dala uste dabe. Mantrak esaten dautse olako otoitzai eta asko erabilten dabez.

GEROKO BIZITZA

Gugaz batera dauke Tibet´ek monjeak eta beste budatarrak geroko bizitzearen itxaropena, baiña euren ustez mundu onetan bizi bear gara guztiz garbi geure buruak ikusi arte, eta orretarako bizitza bat amaitzen danean, beste bizitza batera aldatzen gara, zikiñagoa edo garbiagoa, bakoitza zelakoa izan dan. Ori da “metempsikosis” edo arimak aldatzea edo bir gizarteratzea edo “reencarnación”

Bakoitza guztiz garbitu eta bizitzak amaitzen dauzanean, Jainkoagaz bat egiten da beste munduan, “nirbana” deritxon egoeran. Au be panteismoa da.

EMENGO BIZITZEA

Munduan ondo alkartuta bizi bear dogu, alkarrari laguntzen, bakean. Eurak inguruko baserrietara joaten dira baserrietarrai laguntzen eta onein emoitzak artzen dabez. Geienbat ortik bizi dira.

Erriak asko maite dauz monjeak eta alderantziz lekaideak be maite dabe euren erria.

POLITIKEA

Eurak independentzia nai dabe eta, batez ba aspaldion ori eskatzen dabiltz. Monjeak ez dautsee izten laikoai orretara sartzen, espetxeratuak izan ez daitezana. Gaur 1 200 dagoz espetxeetan eta egoera oso txarrean.

Birmaniatarrak, goragoko maillan Txina´tarrak, dira euren zapaltzaileak, eurai askatasunik emon ez nai dautseenak.

Oraintxe dagoz burruka-aldi onetan gogor jokutzen: 30 000 lekaide eta 40 000 laiko dabiltz kaleetan zear askatasuna eskatzen.

Euren jokabidea bakezkoa da eta demokrazia eskatzen dabe Tibet´erako.

ERLEJIÑOIA

Lekaide edo monje oneik ez dagoz bakarrik euren erlejiñoan, Buda´ren jarraitzaileak dira, bai siniskeretan eta bai egikeretan

JANTZIA

Gorritz edo kololore gorrizkea dauken jantziagaz ibiltzen dira, baiña eskumako besoa agirian, jantzi barik darabillela.

GUK ZER EGIN?

Gizon goragarri oneik aintzat eta ontzat artu eta leku guztietan goratu egin bear doguz.

Gutzak eredu on bat dira, naizta gu gauza guztietan eurakaz batera etorri ez.

OLAZAR´tar Martin´ek

EUSKAL ASTEA

2007-11-19: **Legarreta´tar Asier´ek:** *Guda-aurreko bertso gintza*

2007-11-20: **Olazar´tar Martin´ek:** *Euskal abizenak*

2007-11-21: **Atutxa´tar Paul´ek:** *Euskal erriaren askatasuna (1)*

2007-11-22: **Uriarte´tar Ana:** *Umandi´ren iztegia*

2007-11-23: **Atutxa´tar Paul´ek:** *Euskal erriaren askatasuna (2)*

Euskerazaleak

ESKOZIA'TIK ZEAR ADIÑEKOAKIN



ESKOZIA:

Ezarpena: Europa-ren Mendebalean, Britania-Aundia osotzen daben berezko iru aberrien (naciones) artean, Gales eta Ingalterra-gaz, Eskozia bat da.

Mugak non: Britania Aundiko Iparraldean kokatuta dago eta beren mugak: Egoaldean Ingalterra ta Irlanda-ko itsasoa, Iparralde ta Mendebalean Atlant-Itsasoa, Egoaldeko-Mendebalean itsas-odi edo Iparraldeko itsas-adar-ekin (canal del Norte) eta Ekialdean Ipar-Itsasoa.

Beren Bereiztasunak: Bere izparter edo itsas-bazterrak eta Mendebalekoak batez-be, koskadun itsas-aldira da, ugarte, ur-kolko eta itsas-zirritu edo fiordo askorekin.

Bere lurraldea, ezberdiñeko zati bitan bananduta dago Kaledonia-ko ildo-erreka (surco) sakonagaz, Atlant-Itsasoa Iparraldeko-Itsasoarekin alkar-bidetu egiten dauana.

Bere mendebala ugartez beterik dago. Iru taldeetan dagoz oneik: Ighlands lurraldearen Mendebalean Ebrida ugarteak eta Iparraldean Orkada-k eta Shetlands ugarteak.

Daukazan ibaien artean: Klide, Don, Forth, Liddel, Tay eta Tweed dira nagusienak.

Txebiot-mendiak daukaz Ingalterrako mugan eta Iparralderago Southern Uplands mendi-apalak Merrick-mendiak daukaz 843 m neurri audienean. Ighlands lurraldearen Egoaldean Grampians mendiak, Ben Nebis mendiak 1.343 m. daukazela eta Glen More izeneko sakontasunetik Iparraldera

edatzen edo zabaltzen diran North Ighlands lurralde menditsuak, Mam Sedhail-ek daukazan 1.182 metroakaz.

Daukazan elurtegi (glaciar)edo izotz-mendien leku nagusien artean Firth of Lom eta Firth of Klide dira Atlant-Itsasora begira eta Iparraldeko Itsaso begira Moray Firth eta Firth of Forth.

Guztiz 78.773 Km. karratu daukaz eta 1.981-ean 5.230.000 biztanle.

Ezkozia-ren izkuntza Keltiar Gaelikoa da, berba egiten dabenak baiña, 80.000 inguru dira Ighlandeko Ipar-lurraldeetan eta Ebridetako ugarteetan geienak.

Gaur, Mari Jose gure taldearen erakusle zuzendariak esan ebanez, berrezkurutzen dabizena.

Iriburuak:

Beren Iriburu nagusia Edinburgo da eta daukazan garrantzi aundiko iri-buruak: Glasgow, Aberdeen eta Dundee.

Bederatzi lurraldeetan bananduta dago 1.975-eko urtearen geroztik: Borders, Erdialdea, Dumfries and Galloway, Fife, Grampians, Ighland, lothians, Strathclyde eta Tayside.

Egu-giroa: Atlant-itsasoak emoten dautson girokoa da eta oso lurralde euritsua.

Mendiko ta Ortu-Landarak: Bere basoko zugatz-landarak, oso-osoan gure erriaren lakoak dirala esango neuke, euren zuaitz-sakratu edo erriaren irudizkoa lez artuta daukien zugatza Eledonio piñua izanda eta belar-landareen artean Kardul-latza. Bere lurrak zotal-ikatz edo sats-ikatzekoak (turba = tierras de carbon-mineral) izanda be, nekazaritzazko erri-aberaskian (riqueza publica de la huerta): Garia (trigo), Garagarra (cebada), Oloa (avena), Artoa (borona), Lur-sagarra (patata), Azukrea egiteko Udarbi edo Txerri-arbia (remolacha para azucar) aberastasunean artzen dabe eta barazkiak edo ortuariak ugari.

Aberetan be oso aberats dira daukiezan Ardiak (8.500.000 buru) Beiak zabaltasunaren araubidean bazkan edo larreratuta daukez.

Edestia: Labur esanda, leenengo biztanleak itzi ebezan astarnak oso nastuak dira, baiña K.a. 600 urte gitxi goraberan, ondo mugatutako lau erri keltiar agertzen dira: Piktos Iparraldean, Ezkoziarrak, Britanoak Egoaldean eta Angloak.

K.a. I gizaldian agertu jakiezan Erromatarrak eta K.o. 410^{ean} alde egin ebenean, lau leiñu ziran nagusi Kaledonia deitutako lurralde oneitan: Piktoak Iparralde eta Ipar-Mendebalean, Irlanda aldetik joan ziran Eskotoak Mendebalean, Britaniar gaelikoak Ego-Mendebalean eta Angloak Ego-Ekialdean.

Kristautasuna Eskozia^{ra} VI gizaldian sartu zan San Kolumbano^{ren} eskutik.

Normando^{en} sarritako eraso-aldiak beartuta 843 urte inguruan danon batasuna lortu ebelako, lenengo erregea I Kennet Mak Alpin eskotoa eta Alban eritxona izendatu eban.

Gero, eleiz-gizonen maixukeriaz, euren errege-aundikien arteko eskontzak eta Normandoakaz odolkerizko borroka latz eta ugarien bitartetik, asi jakiezan eragozpen gogorak agertzen erriaren sendotasunerako, 1.468^{an} III Jakobo^k, laterri geografikoaren batasuna alegin aundiz lortu eban.

IV Jakobo^k, Ingalterrako VII Enrike^{ren} Margarita Tudor alabagaz eskonduta, erreñu bien alkartasuna bideratu eban, baiña V Jakobo^k 1.517^{an} Eleiz-Katolikoaren aurka agertutako berri-aldiak (reforma) eta Ingalterrak eskatuta, ez eban gura Aita-Santuaren aurka joan eta Ingalterra bereganatzeko tentaldia euki ebalako Solway Moss^{eko} borrokan il eban. Bere andrearen Maria de Guisa (Maria Estuardo) errege-ordean erlijiozko iskanbil edo iztilluak asi ziran eta John Knox berritzaile aipatua agertuta, Maria Ingalterran eskutatu bear izan eban, bitartez Eskozia^{ko} parlamentu eta aundikien baimenetik katolikotasuna debekatuta.

Eskozia ta Ingalterra^{ko} erregeen arteko eta Eleizaren berrikuntzako nastutasunakaz batera borroka latzak asi ziran, euren aundikerietan biak izan gura ebalako erri-bien erregeak, berezko erri ta erritarrak kontuan artu gabe, erregeak ordurako ez ebalako inungo abertzaletasunik euki. Eta azken baten Kromwell^{ek} Eskozia^{ri} eskeiñi eutson: Ingalterra^{ko} Lege-Biltzarrean, erri-bien Lege-Biltzarrak batera lan dagian, Eskozia^{ren} nortasunezko legeak lotsa aundiaz artuta.

1.688^{ko} iraultzak lortu eban Lege-Biltzar bien alkartasuna 1.707^{an} baieztatuta geratu zana eta ortik aurrera Eskozia^{ko} Lege-gizonak Ingalterrako Lege- Biltzarrean asi ziran lan egiten.


Eskozia^k ortik aurrera, ez dauka berezko erakunde politikorik, baiña a-ta guzti erri edo nazioaren lotsan artzen dabe eta eurak orretan alegintzen dira.

Orain dira, erriaren eritzia batuta, Ingalterra^{ren} menpetik askatasuna lortzeko eta Espaiñolak eta Frantzezak nai-ta esaten bada-be, arazo orrek Euskalerriaz ez daukala zer ikusirik, gure erriarentzat ondo baiño obeto etorriko zan, azken baten bere bien oiñarrizko sustraitik, arazo bardin-bat bakarrik agertzen dalako: "ERRI-GIZARTEAREN ESKUBIDEAK".

ESKOZIA^{TIK} IBILALDIA:

2.007^{an} Iraila^{ren} 3^{ko} astelena: Adiñeko erakundearen arduradunak esanda amarretarako Bilbao^{ko} Termini-bus^{era} joan giñan Lourdes eta ni. Eta txango-zale guztiak alkartuta, txango-zuzentzaileak Loiu^{ko} egazki-zelaira bus^{ean} eroan ginduzan.

1³⁵ean urten gendun Loiu^{tik} Alemania^{ren} Frankfort^{eko} egazki-zelaira, an egazkiña aldatu bear gendulako eta 4^{1/2} etan



bertan egon giñan. Bostak amar gitxiagotan, Frankfort^{etik} beste egazkiña artuta urten gendun Eskozia^{rantza} eta bertara zazpirak eta bost minutu zirala eldu giñan.

Egazkiñeko ibilbide bietan ogi-tartekoak, gura gendun edariakaz (ardo, garagardo, txanpana, kafe edo ura) emon euskuezan

Erlojuak ordu-bat atzeratu bear genduzan Eskozia^{ko} orduakaz bat egiteko eta 6^{1/2} etan bus-berebilla artuta, 7^{retan} eldu giñan Edinburgo^{ko} Premier Trabel I nn ostal-etxera, Lauriston-Street kalea gurutzatzen dan eskomako bazterrean dagoana.

Bus-berebilla^{ren} autolariak, Markos euki eban izena. Mutil jator ta zintzoa bera eta ez eban bear inungo laguntasunik beren lanak ondo baiño obeto beteteko.

Txango-zaleen edo gure bide-erakuslea Mari Jose (Benezolana bera) neska gaztea izan zan eta au-be beren bearra ondo baiño obeto betetan ebana zan.

Aurretik emoten euskuzan, egin bear gendun gauza guztien argibideak eta bus-berebillean joaten gintzazanean Eskozia^{ko} lurraldeak ikusten, bere jakintza erakutsiz, ondo baiño obeto xekatzen (explicar en detalle) eban, Eskoziatarren edestia adierazteran. Pozik ibili giñan beragaz.

Ostal-etxearen gelako giltzak artu ondoren eta afaltzeko ordua 9^{1/2} etan euki gendulako, Etxegarai^{tar} Maite^k, Olazaran^{tar} Jesus^{ek}, Lourdes Barroeta^k nire emazteak eta nik, inguruak ikustera urten gendun.

Afaltzera joanda, gatz-ozpiñeko ontzien antzeko baten, arean erretako kipula-gorri ugari, uraza (lechuga), arbi-gorri (zanahoria) eta ollaskoaren zerra, au-be goitik erreta egon zana eta eurak prestatutako pitxer-txiki baten, ondo egon zan saltsagaz naastuta jan gendun. Ondoren katillu txiker baten atara euskuezan sagar-laranja-maatz garuekaz naastuta eta afaldu ondoren, danok era-bat marmaraka ogeratu gintzazan.

Iraila^{ren} 4^{ko} asteartea:

Zazpiretan izartu giñan eta zortzirak eta laurenetan gozaldtu. Nik, merlatuko igaliak (frutas confitadas) jan nebazan, nai-ta gura ebanak erregosiko arrautzak, urdaia eta abar euki.

Egun onetan, laiño batzuk egon arren, denbora ona egin euskun.

Bus^{era} igonda, Edinburgo ikusten urten gendun bederatzietan, izena gogoratzen ez jatan erakusle barri batekin. Oso atsegiña bera eta erakusle ona.

Bere adierazpenetan, Edinburgo`ren bizitzak euki eban dirdari dembora onenean argitu ta iruditu euskun eta benetan ederra izan bear zala: "Lantegiko-trebetasunean, ontzi-gintzan, ikastetxe nagusiak euki eben garrantzi aundia, San Giles`eko Eleiz-Nagusia, Milla-Real`eko lau kaleak: Kaste Hill, Lawnmarket, High-Street eta Kannongate. Grassmarket ortuariak zaltzen ziran enparantza, John Knox`en etxea (puritanismuaren irasle deritsona), Eriot gaxo-etxea, Holirhoodhouse gaztelua (Inglaterra`ko erregiñak Laterrien garrantzizko egikuntzatan eta agintarizko arzeratan ibiltzen dauana eta Mile-Royal (real)`eko kale azkenean kokatuta dagoena) antziñako sumendi baten gainean eginda dagoena eta ainbat etxe-eder, Udal-etxe, Lege-biltzar eta abar zirenak".

Gero, Oratio Nelson`en oroikarria eta andik ikusten diran ibai-bideko mugi-aldiak eta aurrez-aurre euki gendun ikustoki ederrera joan giñan.

Amabi terdian Heights rte/Apex (Hotel-Internacional) ostatuko bost garren solairuan naiko ondo bazkaldun gendun, baiña ona izan arren, ia janari guztietako azpil edo plater-izarretan Izokiña (Salmon) izan gendun.

Jan da gero zortzi`ak arte, arratsalde guztia aske edo mende-gabe ibili giñan eta Edinburgo, ondo baiño obeto oinkatu gendun. Emen esan bear dot, Edinburgo`k daukan Illerri aundira joan giñela eta ardura-gabe aundian zainduta egoala ikusi gendun.

Laburpena edo Edinburgo`n ikusi neban en ondorioa:

Asko poztu nintzan, jatetxeko gelari, mai-serbitzari eta tabernari geienak ez zirala lan orren bizibidekoak, ikasleak baiño jakin neban orduan. Orren adierazpenak, gaztekin ardura aundiak daukiezala esan gura daualako. Eta goizean iruditutako euren lan-zaletasuna eta Uri-errien arlo guztietako gizarte-auzietan (cuestiones sociales) zelan arduratzen diran ikusita, ikusleentzat askatasun osoko erritarrak dirala iruditu leike.

Baiña badago beste alde gogor-bat, guztiz aurkakoa esaten dauana, adibidez: "Erriaren etxe guztiak ondo landutako arriakaz eginda dagozenak, daukan inguru-giroaren (medio ambiente) sutunduragaitik guztiz loi eta baltzitura dagoz eta baltzitasun orrek emoten dautson illuntasunagaitik, Uri-au, beldurrezko erri-illunaren itxuran agertzen da".

Kalietako zelaia bardin: "Zaarkitutako (desgastadas) eta aldatu barik itxuragabetuta (deformadas) dagozan galtzar-arriakaz oraindiño dagozalako. Eta dagon biribilearen joan-etorriagaz ibilbide estuak dirala, eguneroko bizitza oreka-larrian edo oreka zaindu bearrean bizi direla itzura emoten dau".

Benetako erantzuna, Saint-Giles`eko Eleiz-Nagusian argi ulertu neban: Eleiz-Nagusi ori (catedral), nai-ta ukalari`en Eleiza (iglesia protestante) izan eta Inglatera`ko errege edo erregiñaren agindupean egon, Eleiza guztia, agin-zalekerien edo kaizarkeripean borrokatu ziran gizon ospagarrien omenaldian eginda dagoela esan leikelako.

Orregaitik ez dira Laterriak (estados) demokraziaren zuzentasun edo zentzun- bidekoak, berezko erritarrak euki bear dabezan ardurazko lotsak kentzen dautsiezalako eta batez be, eurak bear dabezan ordezkarietarako diruaren kontrolak kendu ezker.

Or ikusten da, euren etxearen jabe ez dirala, nai-ta Laterritutako Ingles kaizartzak, eurak nazio edo aberri-bat dirala onartu.

Europa`n, XIX gizaldian Laterritutako Kaizartza oneik, konturatuko dira... LAPUR-UTSAK DIRALA ?. Espainan beintzat argitasun guztiagaz azaldu da, berezko-jabetasunari (autonomias) nai-ta apur-bat bakarrik izanda-be eskuak zabaldu ezker, bizitza on eta ordezkarietazko-bakean aurrera eroateko, bear doguzan ardurak bete egiten dirala. Baiña noz !! ardura orreik "REX GRATIA DEI" AMESKERIAN BETE?

Irailla`ren 5`ko aste-azkena:

Seiretan jagi giñan, zazpiretan gosaldun eta zortziretan fardel edo bide-kutzak artuta bus`era igon Edinburgo`ko gorengo lurraldeak ikustera.

Lurralde onen mendiztia (orografia) ikusten joan giñela Dalwhinni`ko Whisky-lurridingira (destileria de Whisky) amar`terdian eldu giñan eta ango arduradunak Whisky-gintza erakutsi, Malta`ko whisky`a gozatu (catar, paladear) eta erosi ondoren, Inberness`era joan giñan Glen Mhor jatetxean bazkaltzeko. Emengo janaria ez zan izan gure gogokoa.

Inberness erri onek, ikusteko gauzak daukaz eta polita da, baiña Edinburgo`ri sortzen jakon antzera: Etxe, lur-saindu edo illerriak, Eleizak eta tegi (edificios) guztien arriak loi. Len esan doten lez, erri oneik ez dagoz euren ardurapean.

Bus`era igonda eta bidean Kulloden`etik aldatzen goazela, Mari Jesus`ek esan euskun: Lur orretan Ingles`aren aldetik 1.746`ko Jorrailla`ren 16`an egin zan azkeneko borroka-odoltsuan, Inglaterrarentzat garrantzi aundikoa izan zala, bertan Ingles`tar Kunberlad`eko dukeak Estuardo`tarrak ezereztu egin ebazalako, ortik aurrera Eskoziarrak menpean geratu.

Gero, Kawdor gaztelua ikusten joan giñan eta an ondo zainduta dagozan ortu ta gazteluaren barriak ondo azterkatuta gero, Abiemore`ra joan giñan.

Emen, I Abimore ostatu-etxean fardelak itxita, ondoan egoan Mac Donald jatexera. Bufet edo zer-zerbis egon zan eta askotariko ta ondo apainduta egoan lez, gure-gendunetik artuta, ondo ta pozik afaldu gendun.

Irailla`ren 6`ko ostegun edo eguna:

Goizeko seiretan izartu giñan zazpiretan Mak-Donald Mesort onetan gosaldun bear gendulako eta zortziretan bus`era igon, eguen oneri txango-zaletasunaren merezimenduan, erantzuna emoteko.

Abiemore`tik urtenda Wester Ross`erantz joan giñan, bidean Rogie-Falls`en geratuta ango The falls of Measatx ur-jauziak ikustera eta ango bide basatietaik joan giñanean urretxa`k, ongoak eta zuza-ori perretxikoak artu genduzan. Baten batek esan eustan: An egon ba-giñan e...?.

Ikuspegi polita da benetan, arek ur-jauzi baltzak (azpian ikatza dagoelako) ikustean ain azkertasunezko oiantsu (frondosa vegetaciòn) ederrean.

Begirategitik eta berago egon zan kablezko zubitik argazki batzuk atarata, ostera be perretxikoak ikusten joan giñela bus`era eldu giñan.

Orain, Glen-Dotxerty`tik Gairlotx`era Lotx-Maree`en (Iago Meri) Ego-Mendebaleko bastarretik, Ipar-itsasotik Atlant-itsasoren izpasterrera aldatzen gara eta aurreratxoago dagon Inberwue Gardens`enean, 1.862`an Osgood Mackenzie`ek landatzen asi eban beroaren be-aldeko (jardines-subtropicales) lorak eta zugatzak lurralde aundi baten ikustera.

Lorak eta zugatzak ikusten zoazenerako, ango arduradunak euro bigaitik eskuko-gaillu bat alokatu egiten dautsue, nor-bera

ikusten doan bitartean, jakin dagizun zer eta zergaitik diran ango lore ta zugatz aiek. Ederra eta lan bikaina asi ebena eta an egiten dabizena.

Gero Aultbea O.T.A.N dauan erritxotik Dundonnell eko ostal-etxean ondo bazkaltzera joan giñan. Janarien izarra izokiña zan.

Ortik, Drumndroxit`era joan giñan eta Lotx-Ness`ean (Iago-Ness) itsas-ontzi batera igonda, ordu erdiko ibilbidea egin gendun Urkuhart-Gaztelu ederrera joateko eta kanpo aldetik zurez eginda daukazan gazteluaren aurkako tramankuluak eta gaztelua ikusita gero, ondo egon zan pelikula labur-bat emon euskun, beren azkeneko edestian sortu ziran gertakizun gogorak adierazteko. Argazki asko atara nebazan.

7 1/2`etan eldu giñan Abiemore I ostal-etxera eta Mak Donald Mesort`en ondo afalduta ogeratu gintzazan.

Irailla`ren 7`ko ostiral edo barikua:

Bost`terdian jagi giñan 7`retan gosaltzeko eta zortzirak lauren gitxiagotan bus`era igoteko.

Txango-bidai au, Abiemore`ko goiko lurraldeetatik ugartearen ibilbide polit-au artu gendun eta 10`1/2`etan Eilean-Donan`eko gaztelura eldu giñan.

Ordu bat eta erdi egin gendun gazteluaren edestia barru ta kanpo-aldeetik ikus- entzuten.

Eskatza zabala eta ondo antolatua euki eben, bere zizkuetan (departamentos de la cocina): Tresneriak eukiteko, eizan arrapatutako egazki ta abereari lumak eta narruak kentzeko, aspirak urune eta bear zana gordetako, mai-luzeak urunak oratzeko eta gozokiñak ta gatz-ozpiñak apaintzeko eta su-laba azko lapikoetan egosi, abereak erre eta ogiak egosteko .

Sukaldeko inguru guzti orreik, bizirik eta len lan egiten egon baziran-lez: Gizon/emakume, tresneri ta eizako egazkin abere ta guzti, edertasun guztian irudituta egon ziran. Argazkiak atara nebazan.

11`1/2`etan urten gendun Skye ugartearen Ipar-Mendebalerantza eta Staffin erritxoa baiño berago dagon Kilt-Rock itsas-bazterrean, itsas-maldan edo goitik-beerako arteztasun guztian eta Eskozia`tarren gerri-beko jantziaren antzera, artudunen (falda plisada) edo tolesturatuta (en pliegues) dagozan atx-ebakiak ikustera joan giñan. Nor-bera txundituta geratzen da, alango gauzak berezko edertasunean ikusten diranean.

Portree errian, lenago Mak Nab`s izan zan Royal ostatura joan giñan bazkaltzera eta ondo jan gendun.

Bus`ean igon eta 4`1/2`etan Armadale`ra elduta, 5`etan itsas-untzi (ferri) batera igon gendun Mallaig errira joateko.

Emendik bus`era igonda Fort-William`erantza eta au atzean itxi ondoren Lotx-Linnhe aintzira (Iago) edo urgeldiaren ertzetik Oban`eko erritxora, Kolunba ostatuan lo eta afaldu egiteko.

Itsas-ertzeko Oban erri polit-onen etxe-bizitzak, beren itsas-kai ta ondar luzeran, iru edo lau kaleko maillatan eginda dago. Eta argi ikusten jako txangolarientzat eginda dagoela.



Itsas-ertzean kokatuta dagon ostatu garbi ta polit-onetan jan eta lo egiteko bere denbora onenean, gelak aurretik eskatuta artu bearko ziran, bestela jai. Gaur baiña, nai-ta beren betiko lillura (encanto) euki, beren garbitasunean lan geiegi egin bear dalako, ez dot uste gaur egunean aurrera atarateko moduan dagoela, guk susmatu genuen antzera, ez bada izaten arrotzetxe`en (hospederos-hosteleros) ikastetxe bat.

Bertan afaldu ta gosaldu gendun ondoen.

Irailla`ren 8`ko larunbata edo zapatua:

Oban`etik, goizeko 9`etan urten gendun eta Eskozia`ren Glenkoe`ko ibar edo aranetik eta Trossan`eko inguru menditsu ta basarte ederreneko eritzian aipatuta dagoan bidetik zear, Lotx-Lomond (Loch=Iago) aintzira edo ur-geldi zabalena bealdean itxita, Stirling`erantza joan giñan, bidean Kallander`ean egoan Hamish zezen uletsu, aundi ta adartsua ikusi bear gendula-ta geratuta.

Hamish zezen au, oso apetatsu eta maiñatsua (caprichoso, perspicaz) izan zan, ikusle eta jendearen maitekerizko ikutueta ez bazan asarratzen, alboan gizon bat maillukiak saltzen egonda berari jaten emoteko, ez ebalako mugi-aldi edo zirkinik egiten.

Stirling`era elduta, beren goi-aldian daukan gaztelu ederrera (Stirling Castle & Nat Wallace Monument) igon gendun eta guk ordurarte ikusi genduzan gaztelutatik edestiaren garrantziko arduran, aunditasunean ondoen zaindua bera izan zan.

Emen be, sukaldean bertan eta inguruan egon ziran tresnerien gelak, eizan arrapatutako egazti-abereak garbitzeko ta gero erregosteko, ogien gertaerako orezkatzeko aspirak eta labak, gizon/emakumeak euren lanetan dirala eta abar, lengo gazteluan bezela emen-be lanean danak bizirik egon ba-ziran lez antolatuta euken.

Argazkiak atara nebazan eta orma baten gaiñera igon nebanean talde osoari argazkia atarateko, beko-aldeetik makiña bat garrasi edo oiur egin eustien andik beratuarte.

Gaztelu eder au ikusi ondoren, ospe aundiko Golden Lion (Leon de Oro) jatetxera bazkaltzen joan giñan eta atean bertoko ezkontza baten ospakizunagaz aurkitu gintzazan,



gizonak Eskozez eta nezka-andrak dotore jantzita, ostatu barruko sarreran ta atean argazkiak ataraten egonda eta otamen (piscolabis) edo amaiketako baten antzera, prestatutakoak janda joan ziran.

Gu, leenengo solairura joan giñan bazkaltzera eta tresneri askoren artean eta jateko gitxi aoratuta, bus`era igo gendun Glasgow`era joateko.

Bidean goazela, Mari Jose`k bere erakutsian Drakin ur-geldi (lago) polita erakutsi euskun (itzulpenduta "Mozkortia" esan gure dauana). Mendietan bizi dan aberea, orein edo bas-auntz gorria dala eta egaztietatik galduta egon dana, basoak, zuaitzi edo oianetan egon ziran zuaitz guztiak bota egin ebazalako (gaur-egun bir-eskuratzen dabizenak) "Martin-oilar edo Bas-oilarra" dala esan eban.

6`retan Glasgow`era eldu giñan eta bus`etik fardelak artuta "QUALITY" ostatura joan giñan, afaldu ta lo egiteko, astelenean Eskozia`tik etxera itzuli arte.

Iraila`ren 9`ko domeka edo igandea:

Quality ostatu aundi au, Gordon-Street kale ondoan dago eta bere denboran bitxi-bat izan bazan-be, gaur betiko apainduekaz egonda, izarak izan ezik loitasunean agertzen da.

7`retan jagi giñan, 8`1/4`retan gosaldu eta 9`1/4`etan bus`era igo Glasgow uria ikustera.

Alizia izeneko txangolarien-erakusle barria euki gendun emen. Erriaren xeetasunezko adierazpenetan oso jakitun eta atsegintsua berau.

Glasgow izenaren itzulpena "Biotzeko toki orlegia" dala eta erria, edonondar edo nunaitarren (cosmopolita) Uria zala. Bertan, Mundua`ren leenengo Merkatarien-Etxea sortu zala eta kanpotik giroaren sutsuduragaitik oso loi ikusi gendun XIII`n gizaldiko Gotzai-eliza edo Eleiz-Nagusia, gaur Uria`ren patroio edo zaindari dan San Mungo leenengo gotzaiñak eraiki ebala eta Ingles`en eleiza zan bat abadeen eleiza dalako ez daukala maillazko gotzaidirik esan euskun.

Ikastetxe-Nagusien ondotik aldatu giñanean, artean Txarls Darwin`ek irakasten eben etxea zein zan erakutsita, aldi baten 45.000 ikasle egon zirala batera esan eban.

Uri lantegitsua izan zala eta bere denborako Klyde ibaia, Munduan lenengoa bere 80 ontzitegirekin.

Errekaren ertzetik aldatzen ibili giñela "Uribarri`tar Dolores"en tupiki edo brontzeko oroigailua errekarara begira eta besoak zabalik eukazala ikusi gendun eta erriaren erditik ibili giñanean, Mandela`tar Nelson`en enparantza. Bera espexetik askatu ebenean Glasgow izan zan leen ikusi ebana.

Arratsaldeko ordu batetan, Millennium-jatetxera joan giñan ondo bazkaltzera.

Glasgow`en laburpena:

Edinburgo baiño argitasun aundiagoa eukinez garbiagoa-be ba-da eta errekan ta errian egin diran aurrerakuntza aundiak nabarmenki ikusten ba-dira, oraindiño naikoa egin bear dabe euki bear dauan maillara igoteko.

Gazteen artean egoera larriak ikusi nebazan, Glasgow`eko gazteri artean (nai neska edo mutil izan) jai-eguneko arratsalde ta gauak, guztiz neurribakoak diralako.

Zeozar ospatzen urtetan dabenean, esan leike udabarrian aberetasunari kortako atek zabaltzen diranen antzera larreratu daitezan kaleratu erdi larru-gorrian urtetan dirala.

Gure artean berbetan egon giñela, baten-batek esan eban: "Erritar-arduradun jakintsuen artean, alkoola, sendagailu (droga), garagarra eta gazteen loditasunak dirala" geien arduratu egiten dabezanak eta garbitu egin gura dabela. Baiña garbitasun orreik nekez egin leikez, Eskozia`ko erria euren ardurapean ez ba-dago, etxeko arazoak etxean garbitu bear diralako. Zelan... etxearen ardurazko jabetasunik gabe ?.

Eskoziatarak Keltiar lez, beti izan dira demokraziaren askatasunezko maitekorrak, beren izatearen nortasunezkoak izan-da, beti borrokatu diralako ingles`en kaizartzazko menperatzailletasunaren aurka. Orregaitik euren arazoak gureak dira, bion arazo bakarra, JAINKOA`k gizartearen eskubideari emondako NORTASUNA`k ezereztu egiten diralako.

Mundu onetan... zer izango giñan NORTASUNIK GABE?

Bidairen egunak nai-ta mugi-aldi aundikoak izan, nirentzat oso ederrak eta argi-bide aundikoak izan dira beintzat.

Iraila`ren 10`eko asteleena:

Etxera etorteko eguna.

Arantza egin gendun ibilbide bardiña egin gendun, Frankfurt`en baiña iru orduren itxaron bearra eukinda.

Atutxa`tar Paul
Zornotzan 2.007`an Iraila`ren 24`an

8.- LEGUTIANO´KO GUDALDIA (Berazategi- Dominguez)

1936´KO GUDA EUSKALERRIAN

“Batalla de Villarreal” daroa izena, izen egokia izan ez arren. Legutiano´koa izan zan Euskaldunen Gudaroste sortu-barriak izan eban lenengo ekiñaldia, Euskalerriko beste erkal-soldaduak lagun zirala. Eta Bizkaia, Santander eta Asturias Farnco´ren eskuetara jausi baiño lenago.

Batzuk ekiñakdi au Agirre Lendakari-barriaren guraria izan zala diño, baiña ez, Araudia onartua izan-ondoren, Jaurlaritza sortu-barria aurrean zala, nai izan zana Euskalerritari kendutako zatia ber-eskuratzea izan zan. Agirre´k ez eban or izan zer-ikusi bereizirik.

Ba-dakigu Lendakari-barria Defensa´rako sailburua be ba-zala, eta Gipuzkoa´rantza joateko guraria eukan baiña Madird´eko Gobernuaren gurarietara makurtu bear izan eban. Largo Caballero zan buru orduan.

1936´ko zemendiaren asieran matxinoak, Franco buru ebela, egoaldetik Madrid´era urreratu ziran eta Erkalaren arduradunak bide bat asmatu eben Madrid´en aurka etozan soldaduak gitxitzeko.

Al zan bestean ori beteteko Euskadi´ren gudarosteak 28 batalloi, euratik lau reserban, bialdu ebazan, iru agetan eratuta: Lenengo Aizpuru Komandantea buru zala, Amurrio-Baranbio´ra joan zan; bigarrena, Kueto koronela buru zala, Ubidea´ra eta irugarrena Ibarrola komandantea buru zala, Otxandio´ra.

Zemendiaren 9n. egunean Franco´k galdu eban gudaldia Madrid´en aurka, baiña erkalak eutsi egin bear eban.

Zemendiaren 30n. egunean asi zan gudaldia Legutiano´n eta erreza izan zan asierea, baiña egun orretan, goizean, asi ziran Ubidea´ko ta Otxandio´ko ageak, Gorbei Txikirantza ta Oketa´rantza. Eta Gopegi´tik Elosu´ra bitartea artu eban, eta Nafarrate´ra be eldu ziran.

Beste batzuk Legutiano´ren aurka jo eben, baiña ezin izan eben ezer lortu eta ortxe geratu ziran egun orretan.

Egun beratan Otxandio´ko ageak, Albertia mendira joateko agindua artu eban, bide orretatik Alonso Vega´ren soldaduak sartu ez eitezana. Oneik Bergara´n egozan illebeta lenagotik.

Zemendiaren 30 eta abenduaren 1´ean, gudari asko ilda, euskaldunak lortu eben Legutiano inguratzea. (An egozan 638 soldadu erreketek ta Flandes´ekoak eta San Martial´ekoak, lau kañoi, Iglesias Komandantea buru ebela). 30´eko gabean esituta egozan eta ezin artu eben ez muniziñorik eta ez janaririk. Baiña gudariak



ezin joan izan ziran Urbina´ra. Bertan geratu bear izan eben.

Abenduaren lenengo egunean gudaldi gogor bat izan zan ANV ta CNT´koak eraginda, baiña illeraren lenengo egunean Legutiano esituta egoan.

Legutiano jausi ezker, Gasteiz eskuetan eukan, or biartean gudariak areriorik ez eukelako.

Abenduaren 2´an matxinoak lortu eben Legutiano´ren esia apurtzea eta alboko piñadian il ziran alde bietatik geienak.

Abenduaren 4´tik 7´ra biartean, soldadu lagungarriak etorri ziran Legutiano´ra, moroak be bai Zaragoza´tik. Eta guztien artean bota ebezan gudariak Nafarrate´tik. Godexola batalloiak iges egin bear izan eban, gudari asko galduta.

Or bitartean, lenengo ageko gudariak (Amurrio-Baranbio) gudaketara sartu ziran, baiña ez ziran eldu Murgia´ra andik Gasteiz´era joateko.

Abenduaren 7´tik aurrera, ekiñaldia galduta ikusten zan, gudari barririk ez etorrelako, eta matxinoak aurrera egiteko gertatu ziran.

Abenduaren 12´an gudariak barriro erasotu eben Legutiano, eta ia eskuratu izan eben, baiña gudari barriak peitzen jakezan, ildakoen lekurako. Egualdia be txarra zan eta gudariak atzera egin bear izan eben. Abenduaren 23´an matxinoak Elosu eskuratu eben eta orrelan amaitu zan Legutiano´ko gudaldia eta Euskaldunen gudariak euren izen ona galdu eben Madrid´eko agintarien aurrean.

OLAZAR´tar Martin´ek

18.- PROSERPINA´REN PUNI-SAGARRA



Zeru-lurretako aginteak jainkoen artean banatu ebezan: Pluton´eri lurpeko kobetako erregetza emon eutsoen. Ez jakon lar atsegin izan aginte ori eta asarretu ez zedin, Jupiter´ek esan eutson Proserpina emongo utsola emaztetzat.

Bildur zan Jupiter neskearen ama zan Zeres´eri jainkoen arteko erabagi ori azaltzeko eta luzaroan ez eutson ezer esan.

Pluton aspertu egin zan itxaroten eta egun baten lur-gaiñean agertu zan eta isil-isillik urreratu zan Proserpina bere lagunakaz jolasean egoan zelaira. Artu besoetan neskea eta bere burdira eroan eban. Eta abiada osoan ezkutatu zan lurpeko jaurerrian, Jupiter´ek izendatutako emaztea gogorkeriz artuta.

Zeres lur-ama eten barik ebillen bere alaba Proserpina´ren billa, eta iñon ez eban urratsik aurkitzen. Azkenean aitzu egin zan lur-ama lurraren zeeregiñak beteteaz eta indar barik geratu zan lurra, urte aretan ez eban lurrak emon ez bedarrik, ez zugatzik, eta ez eukan itxartuteko itxurarik.

Nekazariak larritu egin ziran lurra lotan egoalako eta Jupiter´engana joan ziran lagutzaren billa.

Entzun ebazan Jupiter´ek enakazarien eskariak eta dei egin eutson Zeres´eri eta lurra itxartu egiala agindu eutson, asi daitela lurra frutu barriak emoten: badarrak, landarak, zug atzak eta gaiñerakoa.

Ezetz erantzun eutson lur-amak edo Zeres´ek: -Ez naz asiko barrero lan orretan, Proserpina nire alabea neure ondora oker barik etorri-arte.

Jupiter´ek erantzun eutson urtenerazoko ebalu Proserpina lurpeko erreñutik, Pluton´en menpetik, eta laster izango ebalu bere ondoan. Baiña baldintza bat ipiñi eutson: Neskeak ez ebalu ez jan eta ez edan bear ezer Pluton´en erreñuan, eta baraua gorde ete eban jakiteko Jupiter´ek Merkurio bere ordezkua bialdu eban. Laster eldu zan Merkurio lurpeko erreñura eta Proserpina oso makal egoala jakin eban, egin eban barau gogorragaitik.

Pluton´ek emazte barik gelditzen zala jakin ebanean, barau-itza austeko puni-sagar

zoragarri bat eskiñi eutson Proserpina´ri.

Zoratuta lez egoan Proserpina eskintzen eutson ale ederragaitik, artu eta jan egin eban eta orrelan barau-agindua ausi.

Baraua azkeneraiño gorde ez ebalako, Jupiter auxe agindu eutson: Sei illebetean izango zala Pluton´en emazte luerpeko erreñuan eta negua amaitzen zanean urtengo ebalu, beste sei illebete lur-gaiñean igaroteko.

Arrezkero, urteko udea amaitzen danean, orriak jausten asten diranean, lurrak dardara egiten dau eta lurpetik zalburdi batek urtetan dau, onen gidaria jantzi baltzez doala lau zaldien ugalak eskuetan dituala.. Emakume bi egoten dira itxaroten lur-gaiñean landara biren erdian, bata gaztea eta bestea zarra. Berbarik alkarrari esan barik besarkatzen dira eta gazteak zalburdia igoten dau

Urtero etorten da lurpeko erregea dan Pluton Proserpina bere emaztearen billa eta zelan ezkututzen dira begira, negarrez, gelditzen da emakume zarra, "lur-ama" dan Zeres.

OLAZAR´tar Martin´ek

BIZKARKARIAK (PARASITOAK)

Zomorro oneik abereai edo landarai itsatsi egiten jakez eta euren bizkar edo leptok, euren kontura, bizi dira. Parasitoak edo bizkarkariak esaten dautsegu.

Lur-ikarak baiño bildurgarriagoak jakuz olako zomorroak. Eulien bidez etorri leikiguz gaiso asko edo izurriak.

Euliak aragi ustela dabe maite eta ortik zabaltzen dabez munduko mikrobio guztiak: kolera, tifus...

Aspaldion egiten dira alegiñak euli orreik galtzeko.

Tse-tse eulia da Afrika'n lo-gaisoa zabaltzen dauana: Zizta egiten dau azalean eta batera sartzen dau gaisoaren pozoi ori.

Zm. bat luzerakoa eta urdiña da euli au. Ego bi daukoz bizkar-gaiñean eta okertzekoa dan eztena. Bizkoarra da eta egunez baiño ez dau ziztatzen. Ziztada orreik errearen atzeko oiñazea sortzen dabe.

Afrika'n bizi da, lurralde beroetan, baso eta ibai-ertzetan eta ez dautse bakean izten ango pizti eta gizakia, batez, be erreka-ontzietan, eiztaritzan edo zur-lanetan dabilzanai.

Errialde osoak utzitu ditu, Europa'tik Afrika'ra osagilleak joan-aurretik.

50 milimetroko mikrobio bat sartzen dabe eta berak odola artzen dau eta gaisoa itzi eta gero zabaldu egiten da gizonik gizonera eta abereetara.

Anofeles deritxonak sukarra sortzen dau.

Onak anka luze eta meeak daukaz, emeak adar luze eta lumadunak. Arrak adar mee-meeak eta ezten okergarria. Emeak ziztatzen ditu gizonak eta abereak, arrak landaren izerdia xurgatzen dau. Paludismoa ta malaria be zabaltzen dauz.

IRRINTZI

Lurtar gizon guztiok
jo irrintzi Jaunari
goizian goizetik,
belaun biak makurtu
egun-senti aurrian
gogoz, biotzetik.

Mendian gora doaz
artzaiñen irrintziak
biotz zabaletik,
arrano baltza goian
gizonei entzuten
egazka menditik.

Irrintzi bat egin da,
zoaz, bai, eskolara
gogorik onenaz,
ikasi ta gizondu
zure bizitz ederra
jakituriagaz.

Estegomia'k sukar-oriaren “birus” dakar lurralde beroetan.

Arraiñenak narru-gaiñean izten dau zirria eta ortik zabaltzen da tifus gaisoa.

Abere bakoitxak dauko bere etsai dan zomorro bizkarkaria edo parasittoa. Milla ta berreun mota dagoz: arratoiarena, txakurrarena, elefantearena, gizonarena eta abar... Pizti guztiak erasoten dautse, erapedunai naiz egaztiak naiz erleai...

Arratoiaren bizkarkaria da txarrena eta gizakiari be erasoten dautso.

XIX gizaldian konturatu zan gizakia, arratoiak izurrietan dauken garrantziak.

Tifus'en bizkarkaria zabaltzea kalte aundia izaten da.

Etxeko auliak alde guztietatik inguratzen gaitue, baiña etxeko euliak gorputz illak naiago ditu, biziak baiño.

Etxeko eulia dogu zomorrotik bigunena, edonora sartzen da bildur barik eta zirikatzaile aspergarria izaten da gizakiarentzat.

Mota asko dagoz: urdiñak, orlegiak... guztiak ibillera bardiñekoak eta usaiñari jarraituz ibiltzen diranak.

Basoetan be etxekoen antzeko euliak dabiltz, baiña tabano deritxona da ezagunena: landaretan eta landetan dabillen euli aundia da, ezpata-eulia, odol-zalea eta landatik doan gizakirik naiz abererik ez dago beragandik aske. Narrurik gogorrena be zulatu leike bere eztenagaz. Ur-bazterretan jaiio, azi eta bizi da eta antxe egiten dauz arrautzak.

OLAZAR'tar Martin'ek

LURRA GIZONEN BIZI LEKU

Mendi ta laualdeak
bizi-bizirik dagoz
opaka bizia,
Euskalerra maiteak
toki ederrak ditu
eskainduz zoria.

Lurraren mamin ona
gizonaren lanagaz
gozoz, alkartzen da,
mendie ta zelaiak
bizia emon nairik
agertuten dira.

Giza seme leiala
gartsu, dabil lurrean
atxurrez lanean,
lurrak, zintzo, erantzun
frutu onak emonaz
gizonen onean

PAULIN

NEANDERTALAK ETA ORAINGOAK

Esan leiken gauzea da “homo erectus”en ondorengoak dirala gaurko gizakiak, baiña zelan egin zan aldakuntzan ori? Erantzunak ez dira bardiñak, 130.000 urtetik onako gizakiai buruz.

Guztiak diñoe toki askotan Europa'n (Inglaterra'n, Alemania'n, Grezia'n...) naiz Asia'n (Indonesia'n baiño ez) eta Afrika'n, Etiopia'n naiz egoaldean) gizakiak agertzen dirala “homo erectus” ez diranak eta “homo sapiens” be ez. Orduan, diñoe, aldakuntza-bidean dagozan gizakiak dira. Baiña iñork ez daki aldakuntza ori non asi zan.

Batzu'ren ustez toki askotan batera eta neandertalak “sub-espezie” dirala.

Beste batzuren ustez Afrika'n egin zan aldakuntza ori, sortaldean. Eta orreik Europa'ra etorri ziranean, galdu zan neandertala.

NEANDERTAL-AURREKOAK

400.000 urtetik 200.000'ra asi ziran “erectus”etik “sapiens”era aldaketak eta iru lur-barruetara zabaldu ziran. Or sortu zan neandertala, rodhiensia, petralomenasia... “erectus”ek baiño buru aundiagokoak, baiña ez dira guztiak bardiñak eta guztiak sartu leikez “homo erectus” aurreratu baten edo “homo sapiens”en aurrekoak, arkaikoak dirala. Orreik doaz neandertal'erantza eta gaurko gizakietarantza.

“Homo heidelbergensis” ona da bitarteko orreik guztiok artzeko, “erectus” eta “sapiens”en bitartekoak.

EUROPA'KO NEANDERTAL-AURREKOAK

Heidelbergensis esango dautsagu Alemania'ko Mauer'en aurkituari eta izatez “sapiens archaicus” danari. Noizkoa dan? Izotz-aldi bien artekoa.

Petralona'ko buru-azurra da sasoi orretako ezagunena. Estalaktita baten aurkitu eben eskegita Grezia'ko Thesalonika'n eta beean beste azurrak. Lanabesak be bai bertan, burua neandertaletatik naiz “sapiens” arkaikotik urrean dago. Nozkoa dan? Irugarren izotz-aldikoa edo 70.000 urtekoa.

1935n. urtean eta 1955n.'ean aurkitu ziran Inglaterra'n buru-azurrak eta lanabesak ugari (atxelense'koak, 225.000 urte).

1964n. urtean “Tautabel” gizona aurkitu zan Perpignan'en eta lanabes asko eta zarrak. Nozkoak? 400.000 urte. Neandertal eta “erectus”en antza dauke.

ATAPUERKA'KO LEIZEA

300.000 urte-inguruko azur asko agertu dira. Sartzeko gatx egoan, tximini-antzeko bat eukalako leizeak, 13 metro luze zana. 27 gizaki dagoz, gitxienez eta gorputz guztiko azurrak. 300.000 urte-ingurukoak. Gaiñera 750 astarren,

geienak gazteak. Nondik joan ziran ara? Errekeak ekarriak? Ala gurariz egindako obiratzea da? Ez dira “erectus”.

1992n. urtean iru buru-azur aundiak, “sapiens archaicus”enak izan leitekezanak. Edo neandertalak. Antezesor da onein eta besteen aurrekoa, eta heilderbengensis'ik ez da iñoz izan eta bear be ez da.

Laburpena: “Gran Dolina”n “anezesor” ba-dago, “preneandertalak” ez, “erectus” bai. Azur-leizan neandertalak bai eta “erectus-sapiens” be bai.

AFRIKA'N

Europa'n egindako azteketak ez eben argi itzi aldi orretako gizakiak zeintzuk ziran: “erectus”? Neandertal? Oraingo lako gizaki barriak? Neandertal-aurreko mota bat ezarri gendun baiña onek be Atapuerka'n “homo heidelbergensis”en antza eukan.

Aldi aretan Afrika'n, 3.100 urtekoak diran agertutako astarrenak beste zalantza bat dakarskue: Kenia'n 1967n. urtean astarren batzuk aurkizu ziran 3.100 urtekoak eta gaurko gizakien antza dauke, “homo sapiens arkaiko”, beste batzuk “erectus”en antzekoak dira, “sapiens-erectus”.

Etiopia'ko Bodo gizona 350.000 urtekoa da, beste batzuren ustez zarragoa.

Olduvai'n be aldi orretan “erectus” eta “sapiens” dagoz, egoaldean oster, rhodensis gizakia agertzen da urte orreitan, arrizko lanabesak be badagoz, erdiko paleolitikukoak edo atxelenseak (40.000 urte). Neandertal Europa'n “sapiens”en aurrekoa da eta ipar-Afrika'n be zabaltzen da, urreko sortaldera be bai, baiña egoaldean olakoak? Zer ete da orduan neandertal ori?

ASIA'N

Urte orreitan Txina'n dagoz antzekoak: “erectus”, “neandertal”, “homo soloensis”: Buru aundia dauka eta izan leiteke “erectus-sapiens” eta Neandertal'en aldakuntza, eta buru aundia izan leiteke seksua'ren aldakuntza. Java'n “erectus” eta “sapiens” 300.000 urtean dagoz eta gaurko gizakien antzekoak 200.000 urte daukez.

NEANDERTALAK

Neander Alemania'ko lurraldea da. An agertu zan.

Asko aztertu da gaurko antza daukenakaz batera dagoalako. 1993n. urtean arrobi baten Neander ibarrean agertu zan. Lenago, 1856n. urtean be bai. Kadera, saietsak eta besoa gaurkoena daukaz, baiña sendoagoak. Artza zala uste eben batzuk baiña azurrak gorde ebezan Bonn'eko ikastetxean. Ez zan ezagunena ordura artean, ez zan “sapiens” motakoa. Izaki motz bat? Gaiso bat? Burubako

bat? Eremutar bat? 1864n. urtetik daukagu Neandertala, txinpanze'aren antza dauko geiago. Gaur mota barria da. "Homo sapiens neandertalensis" dau izena.

Astarrena non? Belgika'n 230.000n. urtean. 1848n. urtean beste bat Jibraltar'en, gero Alemania'n geiago.

NEANDERTALAK ZELAKO DIRAN

- Buru-gain luzea ta zabala.
- Aurpegi zabala.
- Begi-gain lodia.
- Akotzik ez.
- Matrail lodia.
- Bizkar-azurra txikia eta batua.
- Beso-ankak lodiak eta laburrak.

Europa'ren erdi-barrean eta Asia'n sarkaldean baiño ez dago.

NEANDERTALEN ARAZOA

- Ze artu-emon euki eben gaurko gizakiakaz?
- "Homo sapiens Neandertalensis" dira eta ortik datoz gaurkoa eta or amaitu eben.

"Sapiens"en menpeko mota bat dira eta ortik etorri zan "sapiens-sapiens".

Mota bi dira eta gaurkoak alboratu egin ebezan besteak. Orren aldikoa da cromagñon.

Bat egin zirala diño batzuk, beste batzuk ezetz (500.000 urte). Ibridoak sortu ei ziran, baiña beste batzuk ezetz diño ibridoak ondoren ez daukelako.

SORTALDEAN NEANDERTALAK ETA GAURKOAK

Israel eta Irak'en bitartean bizi ziran neandertalak eta batera "homo sapiens", Karmelo mendi inguruan.

Lanabesak be itzi dabez, atxelense ta musteriense'koak.

Erri bat ala bi ziran? Ala bata bestearen ondorena? Bi agiri dira "sapiens neandertalensis" eta "sapiens-sapiens". Au da gurea.

URREKO SORTALDEKO LEIZEN ADIÑA

51.000 urte batak eta 41.000 urte besteak. Neandertalak dira an zarrenak. 100.000 urte?

AFRIKA: GAURKO GIZAKIEN JATORRIA

Non sortu zan gaurko gizakia?

"Erectus-sapiens" Afrika'n 100.000 urte dirala. Eta mundu guztira zabaldu ziran bertan lendik bizi ziranen orde bizi izateko. Guztiok andra bakar batetik sortuak? Au "Eva mitochondrial" litzake.

"Homo erectus"tik dator "homo sapiens archaicus" eta ortik datoz gaurko gizakiak, sortaldean agiri dira. Enda ezbaridiñetan eta migraziño askoren ondoren lez. Afrika'n edo urreko sortaldean 100.000 urte daroaguz eta mundu osora zabaldu zan mota au eta bertan egozanen lekua artu eban. Afrika'tik urten ebal 156.000 urte dira.

Gaur ba-dagoz end a ezbaridiñak baiña ori oraintsuko aldakuntza da: 50.000 urte.

Orangutan'etatik banatu giñala, 15 milloi urte dira.

Txinpanze ta goriletatik banatu giñala, 6 milloi urte.

Erectus'etik urten giñala 1,7 milloi urte.

Noiz amaitu ziran gaurko gizakien aurrean munduan zabaldua egozanak? Gaurkoak eldu ziranean.

- Asia'n eta Australia'n: 60.000 urte dirala.

- Ginea barrian: 40.000 urte.

-Polinesia'n: 3.000 urte.

- Ameriketara, Siberiatik: 30.000 urte.

- Mexiko'ra: 30.000 urte.

- Peru'ra: 20.000 urte.

- Brasil'era: 40.000 urte.

- USA'ra 14.000 urte. Kanada'ra 27.000 urte.

Europa'ra naikoa oraintsu joan ziran, 40.000 urte dirala, lenago neandertalak egozan. Lapoiak eta sardoak dira zarrenak.

EUSKALDUNAK: Talde berezia dira, Europa'tik aparte, lenengoak, izkuntza Europa'koa baiño lenagokoa da eta euskereak ez dauka seniderik. Europa'n orain 10.000 urtera arte euskera egiten zan.

Euskaldunak dira ba proto-europeoak, paleolitiko'ko kobetan agertzen dan lez.

OLAZAR'tar Martin'ek

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5


Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

6.- LATERRI BATUAK



Idaz-lanen sail onetan argitaratu doguzan lanetan txiro bizi dan jentea ikusi dogu: Lurraren Ipar-Buruan, Siberia'n, Ozeania'ko ugarte ugarietan... Eldu da orain lurralde aberats eta aurreatu bateri so egiteko ordua. Begiratu dagiegun Ipar Ameriketako Laterri Batuak (USA).

Izugarria da europatarrak, batez be anglo-saxoiak, an lortu daben aurrerapena. Zergaitik? Ego-Ameriketanolortu ez dan aurrerapen aundi ori, zergaitik lortu da Iparraldean?

Tokirik geienetan izaten da ipar-aldea aberatsagoa egoaldea baiño eta Laterri Batuetan beste zio bat be ikusten da: Europa'tik joandako endak eta bertakoak ez dirala nastatu, inditarrek euren "erreserbetara" baztertu dabez. Ego-Ameriketanolortu endak nastatu egin ziran eta urten daben "kriolloak" ez dira aurrerapenerako egokiak. Eta, gaiñera, an be geratu dira inditar baztertuak.

Berrogeta bederatzi laterri alkartu ziran Ipar-Ameriketean, Washington uriburu eta lendakariaren bizileku dala. Baiña itzaltasun aundiz alkartu ziran, laterri bakoitxak bere nortasuna ta agintariak be zaintzen dauzala.

New York edo York Barria da uririk aundieta eta ondo eratua: Kale zuzen eta egokiak, zenbakidunak. Esaterako errez ulertzen dabe non dagon 45n. kalea ta bertan 7n. ibilbidea.

Ipar-Ameriketean dana da aundia: Lurrez Europa guztiaren bestekoa da (Orregaitik ikusi dau Europa'k be laterriak batubearra), 4.000 m.'tik gorako mendiak daukaz urrean, Misisipi ibaiak eta Misuri onen errekeak 6.800 km.'ko bidea egiten dau eta munduko luzeena da.

Erritarrak eroso bizi dira, naiza torre bikoitxetan jazo ezkeror urduritasuna errez agertu. Iruterik batek dauke kotxea, telefonoak ugari....

Lendik ara joanak inglesak, italiarrak, errusiarrak, alemanak, poloniarak eta txinatarrak izan ziran eta orrean gaiñera 15 milloidi dira Afrika'tik jopu lez etorri ziran

baltzen ondorengoak.

Sortaldeko beizaiñak 100 milloidi bei daukez, Boise eta inguruetan artegi ikaragarriak eta lurgintzarako daukezan aurrerapenak eta erreztasunak aundiak dira.

Antxe dagoz munduko bidezabal eta trenbiderik onenak, baiña naiago izaten dabe egazkiñetan ibilli. Ain aundiak dira egin bear dabezan bideak! An dana dago urrin, asago. 6.000 egazkin-zelai baiño geiago daukez.

Ezagunak doguz etxe "zeru-urratzailleak" edo "rascacielos"ak. Olako baten 5.000 lagun bizi leitekez.

Baiña Amerika barri onen ondoan, itxas-ontzi zarrak an dagoz eta basoeran "narru-gorriak" edo "pieles rojas" bizi dira. Ara joandako "ispanoak" be beti ez dira bizi olako egoeran.

Begitu zelako biziera eta zelako jakintza sortu diran 200 urte oneitan!

OLAZAR'tar Martin'ek

9.- ETXEKOAK



Pizti batzuk geure-geure lez artuta daukaguz eta orrein artean egazti batzuk.

Lenengo aldian gizakiak, aragia jan bear ba'eban, eizara joan bear izaten eban eta asmakizun aundia izan zan piztiak etxean eukitea, orixe da ekonomian gizakiak egin dauan eraultzarik aundiena. Etxeko piztiak jaten dauz, txitak eta oillaskoak etxean azita eta gaiñera arrautzak eta olako ondorenak.

Etxeko egaztirik zarrena, bear ba'da, oilloa izango da. Asia'ko lur beroetatik ekarria da. Pertsia'tik eta Ejipto'tik Europa'ra sartua. Erroma'n be oillo asko egoan eta oillarra zan Gallia'n toten edo erriko ikur dan piztia, pizti sagaratua. Erroma'n gaiñera, aztiak (magoak) egaztien erraietatik ezagutzen eben etorkizuna.

Orduko basa-oillarra (paboa) bizi da gaur be. Oilloaren lako ogei arrautza egiten dauz.

Antzarrak eta aateak egiptoarrak dira jatorriz. Etxe-antzarrak asko maite ebezan Erroma'n. Guda baten, galiatarren aurka zan, kapitoloan egoan antzar sagaratuen taldea garrazika asi zan eta arerioak etorri ziranean erromatarrak itxarrik aurkitu ebezan, guda egin eta irabazi ebin eben. Arrezkero antzarrari gurtza emoten jako.

EGAZTI KOROTZ-EGILLEAK

Peru'n bizi dira Karmoranak eta alkatzak, amabost milloiko taldeetan. Urtean 5 milloi tonelada arrain jaten dabez.

Zertarako balio ete dabe?

Euren korotzagaz guano deritxon zimaurre egiten da eta oso ona da azukera, algodoi eta beste landara batzuen ongari lez.


Ugarte baten bizi dira txori orreik eta egazkin-talde baten besteko zaratea ateraten dabe. Arrizko abiak egiten dabez taldeka eta an asten dabez bikote bakoitxak bere ume bi. Eta ondo ezagutzen dabez bikoteak euren umeak eta nasterik sortu ezkerro burrukak izaten dira.

Korotzak an geratzen dira edur-antzer a eta urteetan pillatu ondoren pikatxoiz ateraten dabe eta soloetara eroan. Inka esaten jakon agintaritz a aldian be onartzen zan ongari au. Gaur be bai Peru'n.

OLAZAR'tar Martin'ek



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



BAITUAK EUREN ALDERA BIURTZEA

Entzun izan dogu, eta gutzat pozbide izan da, euskaldunak gudaldian baituta eukezan arerioak eta baitu bagerik egonda be arriskuan aurkitzen ziranak euren aldera eroan dabezela sarritan. Manuel Irujo be orretan ona izan zan. Euskaldunen jokabide gizati ori pozgarria da gutzak! Orrek agertzen dausku gure erriaren biotza zelakoa dan!

Orrelako jazokizun bat aurkitu dogu Barandiaran´ek batutako testigantzen artean, Rikardo Leizaola´k izenpetua eta gure irakurleen pozerako laburpen bat agertzen dogu emen euskeratuta.

Truzios Bizkai´ko errian jazoa da. Antxe bizi zan, naikoa baretsu, Eusko Jaurlaritza, naizta gudea geldu egon arren, matxin-zaleen egazkiñak noizean bein bonbaketak egin.

1937.n urteko bagillaren 29n. egunean Jaurlaritzak Santander´era joatea erabagi eban, baiña 650 baitu eukazan bere ardurapean eta onei arrisku guztiak alboratzea nai eban eta orretarako onena euren aldera eroatea izango zan, Santander´en eta Asturias´en arrisku geiago izango ebelako.

Baituak ez eben nai ezergaitik be “gorrien” alderdian libre geratzea, eurentzat ori arrisku ikaragarria izango litzelakao. Erail egingo ebezan! Naiago eben Jaurlaritzaren menpean baituta jarraitu.

Au idazten dauanaren anaia dan Jesus Maria Leizaola zan Ziuzentasun-Sailleko burua Jaurlaritzan eta onen menpean egozan baituak eta nik, aurretiaz Jose Antonio Agirre´ren eritxia jakinda, neure gain artu neban baitu areik militarren edo matxinzaleen aldera eroateko ardutrea.

Bagillaren 30n. egunean, goizean, neure lagun abertzale baten bidez jakin neban gudari-taldeak, alde batekoak ta besteak, non egozan. Lur-irudi edo mapa on bat artuta, Enkarterriko mendien barririk jakin ez-arren, konturatu nintzan non zer egoan eta nodik igaro leikezan ikusteko, toki batera joatea erabagi neban, Golitza´ko San Sebastian ermitara joan nintzan. Antxe banantzen ziran urak gure esku egoan Truzios´era edo matxinoen esku egoan Balmaseda´rako. Jakin neban, baita, ermitea matxinoen esku egoala eta Golitza-inguruan milizianu batzuk baiño ez ebiltzazala Trucios-alderantza.

Gau aretan bertan baituak andik igaropea erabagi neban. Baiturik geienak Kueto´ko eleizan egozan, batzuk Truzios´ko eleizan. Oar au bialdu neutsen: Arratsaldeko ordu bietan gertu egon militarren aldera joateko.

Nire amesa zan arratsaldeko lenengo orduan guztiak artu eta gauerako Golitza-barrenera eroatea. Mollinedo-ingurura. Eta gero, gauetz, biarteko b i bialduko nebazan

ermitara arerioai baituak joango dirala esateko. Eta baituak ermitara joango ziran banan-banan. Baiña 650 lagun igaro bear nebazan iñor konturatu barik. Bideetan zaintzen egozan milizinu santandertar eta Asturias´tarrak ikusi barik. Bertan gudaldi bat sortzeko arriskua egoan ikusi ezkeru.

Arriskua aundia zan baiña gure erantzukizuna betetuta geratuko zan baituak igaro ezkeru. Gizatia ta maitasunezkoa zan zeregiña amaituta geratuko zan.

Orrelan ba, arratsaldeko ordu bietan igon nintzan Kueto´ra eta lerrotu nebazan baituak Romaña auzora arte. Emen artu nebazan Truzios´koak eta km. bateko lerroa osotu gendun. Agertu neutsen esandako arriskua eta kontuz ibilten ba´ziran, gau aretan bertan egongo zirala euren lagun ziran matxin-zaleen artean esan neutsen.

Lagun bi nebazan neugaz ekintza au beteteko: Juan Manuel Epalza eta Leon Urriza. Oneik eroan ebezan gaiso batzuk kotxeetan Mollinedo´n gugaz alkartzeko.

Egun ederra zan! Mapea eskuan nebala, asi gendun bidea, erriak eta etxeak alboetan izten genduzala. Baiña laster asi zan gure kalbarioa: Golitza´tik Piko Migel eta Traslabiña´ra erri guztietara bonbak botaten asi ziran egazkiañak. Arto-arteetan eta sagardietan ezkutatu bear izaten giñan. Inguruko Santander eta Asturias´tarrak be asi jakuzan tiroka. Baiña apurka-apurka aurrera giñoiazan: Romaña, Plaeco, Manzanal, Zudañes, La Matanza, Laiseka, La Altura... Arratsaldeko seiretan Mollinedo´n gengoan.

Emen ikaratuta geratu giñan: Goizean iñor ez egoan inguru aretan Asturias´eko 211n. dibisiñoa egoan mendi guztiak beteten.

Itzi genduzan baituak zugazti baten eta ingurua aztertzen joan nintzan: Euren buru zana aurkitu neban, ainbeste gizon ikusi ebalako arrituta. Nik zapadoreak giñala esan neutsen eta lubakiak egitera giñoiazala. Pozik entzun eban ori eta eskuetan neukan mapea artu eta esan eustan lubakiak non egozan. Pizka bat arrituta egoan, lanabesik ez geunkelako, baiña kamioi baten ekarriko ebezala esan neutson.

Zelan urten estualdi aretatik?

Gudarien kapitaia etorri jakun bertara eta onek egoera larria geunkala, baiña Laiseka´ra joateko esan eustan Ofizial bategaz berba egiteko. Mendiz joan nintzan Laiseka´ra eta egoera txarrean gengoala esan eustan baiña Padurakoak egoala piko Migel´en areik aurktzeko. Gau aretan billatu bear gendun Padura batalloi ori. Atzera egitea urtebide txarragoa zan.

Baiña oraindiño geiago ikusi bear genduan.

Gure baituak jagoleak eukezan eta oneik izkilludunak ziran. 150 guztiz. Naikoa izango zan inguruan tiroak

entzutea, guda bat sortzeko.. Orregaitik izkilluak kentzea erabagi neban.

Igaroteko, Mollinuebo´tik Gorgolas´era joango giñan eta emendik Kobaron errekatxura. Gu gora joango giñan Padura´koen billa eta oneik aurkitutakoan ordezeko bi bialduko genduzan arerioen artera eta bitartean gora igongo eben baituak. Errekatxua zubitik banan-banan igaro bear zan.

Gauetz illunetan egin gendun bidea. Une baten eskatu genduzan gurarizko bi arerioengana joateko. Militar bi etorri ziran eta Urriza´gaz eta neugaz , illun-illun egoala, igon gintzazan mendira, sasi-arterik sasi-arte. Gogoia galduta be ibilli giñan. Gudarien zaratak entzuten genduzan inguruetan. Onetan argi bat ikusi gendun eta -Nor da?- esan neutsan. Berak erantzun : Padura!

14 gizon ziran sarjento bategaz eta prest egozan guri laguntzeko.

Bialdu genduzan biarteko biak matxinoen artera eta gu baituen billa joan giñan.

Ipiñi genduzan guztiak euren askatasunerako bidean eta Traslabiña´ra biurtu gintzazan eta goizaldian amaitu gendun gure gizabideko ekintza larria, gure Euzkadi´ren azkenengo lur-zatia galtzeko orduan gengoala.

Baiña gauzak zelan diran! Iru egun geroago Donosti´ko Radio Rekete´k emon eban jazokizun onen barria onelan:”Eusko Jaurlaritzak lotsaz menperatuta iges joiala, milizinu batzui esan eutsen 650 baitu Santander´era eroateko. Milizianuak ez-jakilñiak ziran eta Santander´era barik gudalekura eroan ebezan eta gura soldaduak ori ikusita, salbau egin ebezan gorrien eskutik”.

OLAZAR´tar Martin´ek

ONTASUNA

Mundua gaitzak jota zoritxarpean dago samiñen samiñez, goseak eta gudak zapaldu dabe lurra gizonen odolez.

Gizon biotzez onak bakea ta ogia nai dabez lurrian, nun zagoz ontasuna, gizartea itzita, erbeste aldian.

Aurrerapide ona biotz zuzen onagaz zatoz gizartera, ontasuna gura dau munduan gizarteak maitasun erara.

JAUNGOIKO SALBATZAILLE

Jaungoiko Salbatzaille munduan agertu zan gizon jantziagaz, maitasun biziz dator gizadiaren alde bizia urtuaz.

Biziaren Sorlea osorik eskeintzen da Golgota mendian, maitasun aundienak arritu dau lur dana odolena artian.

Esnatu zaitez lurra zabaldu ate danak giza biziari, ogi ta maitasuna egiaren bidetan emon gizonari...

ON

Ondu zaitez gizona egite onenetan bizia pozturik, zuzentasun bidea egiz da goresgarri egitez ondurik.

Gaiztakeri gogorrek bizia samintzen dau gizonen artean, lapurreta samiñek bijoaz zuregandik gizonen etxean.

Zatoz ontasun zintzo, zatoz zuzentasuna bizien lurrera, zabaldu biziagaz bere poz guztiagaz gizonen artera.

ZUZEN

Perutxo zorientasu gizonen zuzen zuzena aitagaz bizi zan, beti eredu ona aitagandik arturik bizitzan guztian.

Zuzentasuna on da bakeaz alkarturik bizi izateko, giza semeak lurrez maitasuna bear dau zorionduteko.

Ta zu, gizon zuzena, ez egin atzerarik anaien artean, zuzentasun garbiak zainduko dau bizia gizonen lurrean.

PAULIN

PRAGA'N

Komunismoak, Europa'ko sortaldean, 1989'gn. urtearen azken aldera artu zuan azken atsa. Illabete batzuek geroago, 1990'gn. urtearen uztail-dagonilla artean, bi bat egun igaro nituan bertakoek idazten duten Praha'n (H izkia euskal G bezala irakurten dute).

Garai artan Txekoslovaki zan aberria, ta Praga zan bertako uriburu. Viena'n ikastaro batean ezagutu nuan Brasil'dar lagun bat eta biok abiatu giñan Austria'tik.

Berebiltzarrez (autobusez) araatu giñan. Bidean atsedentxo egin genduan, eta piparrrik balio ez zuten saltxitxak eta naranja-ura artu genituan. Naranja-urak, naranja-ura baño, ura soillik zirudian. Ez ziran ez aiek, Austri'ko saltxitxak bezelakoak, alajaungoikoa...!

Akeita ere, turkiarra esaten dioten oietakoa, ez zan oso goxoa; auts moduko kondar batzuek zituan.

Berebiltzarrean, Brasil'dar senar-emazte batzuekin mintzatu giñan, jator giroan. Euskalduna nintzala esan niotenean, euskerak beren belarrietara errusiera ematen zuala erantzun zidaten.

Bazirudian Txekoslovaki'ko basarri-lurak eta baratzak zabarkeriz zetzatela...

* * *

Iritxi giñan Praga'ko berebiltzar-geltokira.

Txango-landolara joateko taksia artu nai gendularik, taksi eramalle guztiek esan ziguten orduantxe zutela atsedentxolarte goxoa.

Gizon gazte batek eramango ginduzala esan zigun, ori berez legez kanpokoa izan ba'zitekean ere. Bere anai gazteena pozez txorutzen zegoan. Joan nai genduan tokira iritxi ta zenbat ordaindu bear genion galdetzerakoan, nai genduana eman genezaiola erantzun zigun, apal-apalik; barru-oneko gaztea izaki, nunbait.

Viena'tik bagenekian, txango-landola batean etxea alogeratzen zuten Praga'tarrak bazirala. Gizon batekin itzein genduan, eta eskeñi zigun salneurria egokia iruditu zitzaigun. Naikoa etxe aundia zan, eta uri-gunetik urbil zan. Ituna egin genduan, beraz. Eguraldia naiko ona zan, eguzkitsu zala derizkiot.

Etxea alogeran utzi zigun gazteak ingelesez adierazi zigunez, politika-egoeran obetzen asia zan, baño ekonomiak artean komunista izaten jarraitzen zuan, egun aietan bein baño geiagotan oartu giñanez.

Etxea garbia zan, ataria autsez betea ageri ba'zan ere.

Uria pollit-pollita ageri zan, goibel eta itun antzean, baño... larrosa ximela bai'litzan...

Wenzeslao'ren Enparantza zan Praga'ko erdigunea. An Jan Palach'en illobia datza, sobietarrak eta Varsovi'ko Itunaren barreneko gudarosteak sartu ziralarik, bere burua erre zuan gazte txekoa.

Nik an rosi nuan Praga'ri buruzko idaztitxo batean ordea, sobietarrak eta senide sozialistak sartzearekin batera Txekoslovaki'ren oñazea bukatu zala diote. Nabarmena da, batzuek errusieraz jakin arren, izkuntza ori ez dutela erabili nai izaten. Alemanez edo ingelesez mintzatzen dira.

* * *

Moda kontuetan gazte asko 60'gn. urte-zaleak ageri ziran, eta nun-nai ikusten genituan mutil ille-luzeak, bakero petatxoak soñean. Ez ziran ala ere guk izan genezazken Levi'sak bezelakoak.... Neska askok orratik gona jazten zuten.

Uriko baztar guzietan pake goxo-lasaia nabari genduan.

Akeitetxe batean Gulasch zuku bana jan genduan, eta ez nolanaikoa gañera. Berez Hungria'koa da zuku ori; beike eta txaalki ta espezia batzuekin egiten dan giso edo erregosi moduko bat da.

Oraindik Praga'n ikusi nituan arpegietaz oroitzen naiz, orokorrean.

Idazti-saletxe batean ere izan giñan; antxe erosi nuan idaztiño bat Praga uriataz, argazki asko dakarzkina, guziz pollita. Saltzalleak alemanez bazekian eta adeitsu ezagutzen zan. Uri astako jendeak paketsua ematen zuan.

Txaide edo kale luze batean, komunismoa gogorazten zuan zenbait postal ta oroigarri erosi gendun.

Arratsalde batean, Austri'n ezagutu genduan Nipon'dar batekin, Heizo'rekin, alkar artu bear genduan. Ango garagar-ardoa txastatu nai bai, baño ainbat ardan-gela ta ostatutan garagar-ardorik ez zutela esan ziguten, eta ardoa besterik ez zutela...

– Orixe da komunismoa- esan zuan Heizo'k.

– Ori ez da komunismoa, ori estupidismoa da– Norberto'k erantzun. Gure artean ez zan asarrerik orratik.

Azkenean arrotz-etxe edo otel batera joan giñan, aparitara. Guinness bat edan nuala gogoan det. Itxurak diranez, arazoak zituzten orduan garagar-ardo orniketarekin.

Amaika ikusteko jaiok gaude...!

Txolarte goxo ta atsegiña igaro genduan irurok. Uritik egurastu giñan. Lurpeko bultziz ere ibilli giñan, eta Praga'n ere baziran erdigunea bezin ederrak ez ziran auzuneak, danak etxe itun berdiñak, karebeltza edo zementuja karebeltzaren gañean...

Ikus-etxe edo museo batean ere izan giñan. Praga ta Txekoslovaki'ren edesti, lutelesti, ertu etabarren gauzak ziran erakus-gai.... Bazuan bererik, bai, ikustetxe arrek...

* * *

Praga'n judutarrek ere badute beren illerria.

Praga'ren erdigunea margo polit bixidun etxe zaarrez josita zegoan, eta dana zan an pake ta goxotasun.

Urte batzuek beranduago, eslovakiar neska batek esan zidan Praga amerikartzen ari zala ta lengo xarma ura galtzen ari zala, nun-nai salgaiak erosteko iragarkiak ageri zirala ta uriak leen zuan itxuraren iragan-miña ta utsunea zitula... Antzekoa esa zidan Poloni'tar batek Varsovi'taz.

Wenzeslao Enparantzatik ara-oneraka genbiltzan.

Akeitetxe itun batean ere sartu giñan, eta ardan-gela batean txekoslovakiarrak garagar-ardoa erosteko errezkada egiten ikusi genituan.

Beste akeitetxe batean apaldu genduan, baño an maiean ezezagunekin exertzea ez da arritzekoa. Txolarte goxo igaro genduan, ba.

Toki ikusgarria, bai, Praga... amets-kabi lilluragarri...!

Etxaburua'tar Asier

27.- LIZARDI (Jose Maria Agirre) 1896-1933

Zarautz'en jaio ta Tolosa'n bizi.
Madrid'en ikasi eban legedia (1917)

1923'an ezkondu zan Frantziska
Izagirre'gaz

Umetako euskerea aitzu egin
jakon, batxillerragaz batera barrero
eskuratu eban.

1916n. urtean asi zan idazten Eusko
Deya'n eta 1927n. urtean Arrasate'n
egin zan Euskerearen Egunean biurtu
zan ospetsu.

Gaur, orra agiri, tarteka urdiña...
Sor zait barruan larrera-miña;
ta, aspaldi ez-ta, mendi-aldi,
bete ditzadan argiz begiok;
eten zain-giar lotuegiok;
bularra asetuz noan geldi.

1930n. urtean, Errenderi'ko Olerti-
egunean iru olerki aurkeztu ebazan.
Sariak lortu be bai.

Bere liburuak:

1) Biotz-begietan (1932). 168
orrialde, olerkiak euskera ederrean.
Orixe'k egin eutson itzaurrea eta auxe
diño: "Gurean orain-arte ez du izan
kiderik"

2) Umezurtz-olerkiak: (1934) Bera
il eta gero agertuak.

Badut zalantza zein giro izaki;
otzaren aala danentz obaki;
ikus ezipaidut Udaberri...

Baiña, bat-batez, gain-bera, maldan,
moltso zuri bat... Elur ez al dan,
loreak ote... aal igerrri?

3.-Itz lauz(1934): Itzaldiak eta
idaz-lanak.

4.-Iru antzerki.

Ona emen olerki bat:

Anitz egunez, ez gera alaitu
lurtarrok. Goien sar egin baitu
Euri'k Euzki giltzapean;
yaun orail eder, legorteen aita,
katez loturik egona baita
odei guztien sabelean.

Ari beltz oker naasi sareak
eundaka atzitu ditu loreak?
Elur malutak? mitxeletak?
Itxon: txori bat, zear, egaka
dabil kabigai-lorrez, esaka:
-Gaur dira gure maite bestak!

28.-LAUAXETA (Esteban Urkiaga) (1905-1937)

Laukiniz'en jaio zan baiña umetatik Mungia'n bizi.

Abade izateko ustez Durango'ko josulagunen artera
joan eta an josulaguna izatea erabagi eban.

Loiola'n egin ebazan urte batzuk ikasten, gero Oña'ra
joan zan. Ikaskide ospetsuak euki ebazan:Zaitegi, P.Mugika,
Orixe be inguruan bai. Aita Herrandonea'k kendu nai izan
eutsoen euskal-zaletasuna baiña alperrik, talde osoak asi
eta jarraitu eban Ikastetxe Nagusirako idazle greko eta
erromataren libururik ezagunetan euskeratzen, esaterako
Zaitegi'k euskeratu eban Plato.

Baiña abadetza artu baiño lenago gurasoen ondora
biurtu zan eta emen jarraitu eban ikasten eta idazten.

Guda sortu zanean, arlo garratz onetara sartu-bearra etorri
jakon eta Gernika'n, erria erre eta gero erbesteko izparlari
bateri erakusten ebillala atxillotu eban eta Gasteiz'ko
karmeldarren etxera eroan.

An jarraitu eban idazten: Amar bat olerki, beste amar
eskutitz, bere testamentua (erderaz) eta marrazki batzuk
egin ebazan. Aita Moreno josulaguna izan eban beti
ondoan, ilteko eroan ebenean be bai.

Il baiño iru egun lenago atera eban andik eta Santa
Isabel illeriko orma-ondoan il eban, ogeta amabi urtekoa
zala. Asko jazan bear izan eban Orixe'k guda zala-ta, baiña
Lauaxeta'rena txarragoa gertatu zan.

Zori txarreko Garcia Lorke'gaz artu-emonak izan
ebazan.

Aurten beteten dira 100 urte jaio zanetan eta mungiarrek
aundikiro ospatzen diardue urte guztian.

Olerkigintzan Orixe'ren eta Lizardi'ren maillakoa
dogu.

IDAZLANAK:1) Bide barriak(1931) 42 olerki.2)Arrats-
beran (1935) 40 olerki.3)"Euzkadi"ko euskal atalean asko
idatzi eban.4) Mitiñak eta itzaldiak Euskalerra osoan.

IRITZIAK: Aitzol'ek:"Biotz legunekoa bera,barru
barrutik irtendako trebatasun miña eta apaltasun meca"

Mikel Zarate'k:"Fedearen argitan erakusten dausku
giza-bizitzaren misterio arrigarria"

Ona emen olerki bat, parnasianismoaren usaiña dauana.

ZELAIETAKUA

Zelaira dua neskatxa:
-axia dabil loretan.

Zelaira dua neskatxa
maitasun-kanta kantetan.

Argi daukazuz begiak,
gorputza dozu liraiña:
abestu daigun bi-bijok
Abestu daigun zelaian
soin orren lili-usaiña,
millazkaen antzo dantzan.

Zelaira dua neskatxa:
-erliak mur-mur loretan-.

Zelaira dua neskatxa
Maitasun ona topetan.

Dantza-dantzari bedartzan,
ete gara udabarrian?
Ara txindor bi zugatzen.

Txirula ta danboliña
Entzuten dira mendian.
Zerua dago ostiña!

Zelaira dua neskatxa:
-ingumak dar-dar loretan-
Zelaira dua neskatxa
maitasun deuna gordetan.

Barre dagigun leunkiro,
barre auxe dan ixilla!
Tanbolin, abil, astiro!

Mendiko axe biguna,
ator zelaira lora-billa,
lorak eta maitasuna.

Zelaira dua neskatxa:
-axia dabil loretan-
Zelaira dua neskatxa;
-urretxindor bi kantetan!-

(Lauaxeta)

BBK

EUSKERAZALEAK

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO
200 pezeta (1,20 euro)

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilerro,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350
Lege gordailua: BI-1452-85
FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

www.bbk.es

bbk²